



Euskararen berri OLAtu gainean



2012ko martxoko ALBISTEAK:

Euskarazko lan agiriak sarean

Kontseiluak baliabide sorta ederra jarri du denon eskura: diru-laguntza publikoei buruzko informazioa, errotuluak, gutuneria, hornitzaileen fakturak euskaraz jaso ahal izateko argibideak, lan agiriak, lan kontratuak, nominak, txostenak euskaraz egiteko ereduak, estatutuak, euskarazko programa informatikoak doan jaisteko loturak, e.a.

Kontseilua: <http://www.baieuskarari.org/?op=3&show=14>

Gaelikoaren alde korrika

Abian da Rith 2012, gaelikoaren aldeko lasterketa; hamar egunez, Irlanda korrika zeharkatuko dute

Berria. 2: http://paperekoa.berria.info/plaza/2012-03-10/044/001/gaelikoaren_alde_korrika.htm

Gipuzkoako diputazioak zerbitzu guztiak euskaraz eskaini nahi ditu 2015ean

Errentaren kanpainako inprimakiak baliatuko ditu Diputazioak gipuzkoarrei aukera hori eskaintzeko. Zigor Etxeburua Gipuzkoako aldundiko euskara zuzendariarekin elkarrizketa egin diote

Diario Vasco: <http://www.diariovasco.com/v/20120322/al-dia-local/na-hi-duenak-euskara-hutsean-20120322.html>

Gara: <http://www.gara.net/paperezkoa/20120324/330489/eu/Erroldarekin-jendea-euskaraz-bizi-dadin-animatu-nahi-dugu/>

Eleanitzak elebakarrak baino argiagoak dira

Euskal Herri elebidun honetan sarri aipatu izan dira eleaniztasunak dituen abantailak, era guztietakoak. Asteburuan The New York Times egunkaria haratago ere joan da: hizkuntza bat baino gehiago hitz egiteak argiago bilakatzen gaitu.

Sustatu: <http://feedproxy.google.com/~r/sustatu/~3/Q-EWtdQ7eQc/1332155498>

Gozatu aniztasuna euskaraz

Hizkuntza, komunikaziorako tresna garrantzitsuena izanda, elkarbizitzarako oinarria da, eta, egoera berri honen aurrean, eztabaidarako gai garrantzitsu bihurtu da. Euskal jendartearen, euskara hizkuntza gutxitua izanik, haren iraupenaren inguruko kezka areagotu egin da errealitate berri honekin, eta zalantzak, epaiak, usteak eta iritziak zabaldu dira, sarritan, ezjakintasunetik eraikiak.

Berria: http://paperekoa.berria.info/iritzia/2012-03-25/006/002/lege_info.htm

Hiromi Yoshida: "Hizkuntza ez jakitea eta ez erabiltzea, biak gauza bera dira"

1995etik ia urtero etortzen da Azpeitira hizkuntzalari japoniarra. Euskarari buruz eta 20 hiztun baino ez dituen Ainu hizkuntzaz dihardu elkarrizketa honetan

Uztarria.com: <http://uztarria.com/aktualitatea/1330620129>

Ipar Euskal Herriko bi eleko eskola publikoan lehen aldiz 5.000 ikasletik gora

Euskaraz ikasten duten ikasleen kopuruak gora egingen du eredu publikoan, pribatuan zein Seaskaren eredian

guraso.com: <http://guraso.com/albisteak/bi-eleko-eskola-publikoak-5-000-ikasle-ukanen-ditu-1>

Osakidetzak "Euskaraz bai sano!" kanpaina jarriko du martxan euskaraz gehiago egin dadin

Mediku eta erizain euskaldunak identifikatzeko kanpaina abian jarriko du Osakidetzak. "e" hizkia duen pin bidez egiteko asmoa dago, oraindik proiektua bada ere

Diario Vasco: <http://www.diariovasco.com/v/20120313/al-dia-sociedad/euskera-saludable-20120313.html>

'Gu geu' egitasmoa, mintzalagun hirueleduna

Euskara, gaztelania eta frantsesaren ikaskuntza eta ezagutza sustatzeko "Gu geu" egitasmoa jarri dute martxan hango elkarte batzuek. Mintzalagun edo mintza-praktika jarduera baten antza du, baina inguruko hiru hizkuntzei begirakoa

Karrajua: http://feedproxy.google.com/~r/Atoan-KarrajuaLabur/~3/iODzscJcU_A/gu-geu-egitasmoa-mintzalagun-hirueleduna

Stop, bazterten duten seinaleei

Iruñeko Udalak euskararen ordenantza aldatzeko mozioa onartu du, euskara eta gaztelania pareko izan daitezen hiriko hizkuntza paisaian. euskalgintzak bultzatu eta txalotu du egindako urratsa.

Berria: http://www.erabili.com/zer_berri/berriak/1301559944

EAEko haurren %60ak euskaraz ikasten du

2010/2011 ikasturteko datuak dira. %17ak izena eman zuen A eredian

El Correo: <http://www.elcorreo.com/vizcaya/20120326/mas-actualidad/sociedad/euskera-educacion-201203261050.html>